



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2015eko uztailaren 7a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:52

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularume, Gotzon Igoa Agirrezabal, Amagoia Iribar Manzisidor, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparragirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2015eko ekainaren 13ko udalbatzarra eratzeko bilkuraren akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarraren bilkuren maiztasuna.
- 3.- Onartzea, egoki bada, alkatearen eta zinegotzien liberazioak eta dagozkien ordainsariak.



- 4.- Onartzea, egoki bada, alkatearen proposamena batzorde informatzaile iraunkorrak eratzeari buruz eta horien osaketari buruz.
- 5.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarreko kideek jasoko dituzten konpentsazio ekonomikoak eta sozialak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, udalbatzarreko ordezkarien izendapena udalak ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatu guztietan.
- 7.- Alkateak hartutako erabakien berri ematea hainbat izendapeni buruz: alkateordeak, gobernu batzarkideak, batzorde informatzaile iraunkorren buruak eta dagozkion delegazioak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Orioko herriko jai eguna 2016. urterako.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2015EKO EKAINAREN 13KO UDALBATZARRA ERATZEKO BILKURAREN AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2015eko ekainaren 13ko udalbatzarra eratzeko bilkuraren akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN BILKUREN MAIZTASUNA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-a) artikulua ezarritakoa betez, alkateak proposatu du udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken asteartean, 19:00etan. Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta proposatzen du udalbatzarren ohiko bilkurak egiteko ordua aldatu ahal izatea, udalbatzarra osatzen duten talde politikoek modu arrazoituan hala eskatzen badute.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta proposatzen du udalbatzarren ohiko bilkurak 19:30ean egitea, hilaren azken asteartean.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, egindako proposamenak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren ohiko bilkurak hilero egitea, hilaren azken asteartean, 19:30ean, eta aukera izatea ordu hori aldatzeko udalbatzarra osatzen duten talde politikoek modu arrazoituan hala eskatzen badute.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN ETA ZINEGOTZIEN LIBERAZIOAK ETA DAGOZKIEN ORDAINSARIAK.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua ezartzen du udalbatzarreko kideek eskubidea dutela ordainsariak jasotzeko beren kargua betetzeagatik, bai dedikazio eskusiboan eta bai partzialean; kasu horretan alta emango zaie Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, eta Udalak bere gain hartuko du enpresaren parteko kuotak ordaintzea. Dagozkion ordainsariak finkatzeko, honako araua hartu behar da kontuan: 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztekoa.

Ondorioz, alkateak honako hau proposatzen du:

- Berak dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 60.378 euro).
- Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea alkateorde eta batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 30.189 euro).
- Aitziber Campos Morey zinegotziak (EAJ) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 30.189 euro).
- Bertan behera uztea aurrez egindako proposamen hau: Eugenio Cotado Iturain zinegotziak (EAJ) %33ko dedikazio partzialarekin betetzea batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 20.126 euro)
- Bertan behera uztea aurrez egindako proposamen hau: Elixabete Bello Martija zinegotziak (EAJ) %33ko dedikazio partzialarekin betetzea batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 20.126 euro)



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA alkateak dedikazio eskusiboan betetzea alkate kargua, indarrean dagoen UDALHITZ hitzarmeneko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 60.378 euro).

2.- ONARTZEA Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea lehen alkateorde eta Hirigintza, Ingurumen eta Gizarte Ongizate batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 30.189 euro).

3.- ONARTZEA Aitziber Campos Morey zinegotziak (EAJ) %50eko dedikazio partzialarekin betetzea Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzordeburu kargua, UDALHITZeko ordainsari orokorren 28. mailarekin (urteko zenbatekoa 30.189 euro).

4.- Beren karguak dedikazio eskusiboan eta partzialean beteko dituzten hiru korporaziokideei alta emango zaie Gizarte Segurantzako Erregimenean eta Udalak hartuko du bere gain enpresaren parteko kuotak ordaintzea.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta honako hau adierazten du:

- Bere talde politikoarentzat harrigarria da alkateak udalbatzar honetan bertan egindako proposamena, bertan behera uzteko berak aurrez aurkeztutako bi proposamen, bi zinegotziren dedikazio partzialari buruzkoak; bere talde politikoaren ustez, horrek adierazten du proposamen horiek ez zeudela behar bezala landuta eta inprobisazioan ari dela.
- Bere talde politikoarentzat kargua dedikazio oso edo partzialarekin beteko duten korporaziokideen ordainsarien maila altua da 2011-2015 agintaldian onartutako liberazioen mailarekin alderatuta: alkateak 24. maila zuen lehen, eta 28.a proposatzen da orain; bestalde, bi liberazio partzialak 22. eta 20. mailakoak ziren lehen, eta 28. mailakoak proposatzen dira orain.
- Ondorioz, Udalak diru gehiago jarri beharko du liberazio horiek ordaintzeko eta, EHBilduren ustez, lehentasunak beste batzuk dira: Obra eta Zerbitzuetako brigada handitzea, ingurumen teknikari bat kontratatzea eta abar.

Aipatua izan delako, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, 2011-2015 agintaldia kenduta, aurreko agintaldietan alkatea ordainsarien 30. mailarekin liberatu izan dela;



adierazten du, baita ere, hobe litzatekeela aurreko agintaldian gerakinetik gastatutako 7.000.000 euroak Udalaren kutxan jasota baleude.

Emeterio Iribarrek hartzen du berririo hitza eta adierazten du aurreko agintaldian gerakinetik gastatutako diru kopurua ez zela izan 7.000.000 eurokoa, baizik-eta 3.600.000 euro ingurukoa.

Amaia Dorronsoro zinegotziak (EHBildu) hartzen du hitza eta adierazten du gai hori —diruzaintzako gerakinaren erabilera kreditua aldatzeko espedienteak onartzeko— askotan hitz egin dela eta garbi dagoela dagoeneko; bestalde, adierazten du alkatearen liberazioa onartu izan dela ordainsarien 30. mailarekin, baina baita ere 26. mailarekin eta bat datorrela Emeterio Iribarrek esan duenarekin, alegia, herritarren lehentasunak beste batzuk direla eta Orioko Udalak baduela non hobeto gastatu liberazioetako diru hori.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta honakoa adierazten du:

- Hainbat kontu argitzen ditu udal diruzaintzako gerakinari buruz eta Udalak zenbait kontu korrontetan dauzkan diruei buruz.
- 2011-2015 agintaldiko kontuen auditoria egitea eskatzen du.
- Atzo goizera arte ez zituen jaso alkatearen proposamenak gaurko udalbatzarrerako eta, beraz, oso denbora gutxi eman zaie gaia behar bezala aztertzeko.
- Bere talde politikoak begi onez ikusten du alkateak gaurko udalbatzarrean egindako proposamena, %33ko dedikazio partzialeko bi liberazioak bertan behera uzteko.
- Bere talde politikoa ados dago alkatearen liberazioarekin, baina ez bi liberazio partzialekin, ordainsarien maila altuegia iruditzen zaiolako.
- Udalbatzarrean onartutako liberazioek 130.000 gehiagoko gastua dakarte, gutxi gorabehera, eta, beraz, EAJren zerrenda oso garesti aterako zaio Udalari.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATEAREN PROPOSAMENA BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK ERATZEARI BURUZ ETA HORIEN OSAKETARI BURUZ.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1-c) artikulua honakoa dio, hitzez hitz: *5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan (...) beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak*



aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera.

Ondorioz, alkateak honako batzorde informatzaile iraunkorrak osatzea proposatzen du:

- Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailea.
- Kultura, Turismoa eta Euskara batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: kultura eta turismoko gaiak, alde batetik, eta euskarakoak, bestetik).
- Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: hirigintza eta ingurumena, alde batetik, eta gizarte ongizatekoak, bestetik).
- Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: obra eta zerbitzuotako gaiak, alde batetik, eta hezkuntzakoak, bestetik).
- Kirola eta Gazteria batzorde informatzailea.
- Nekazaritza, Arrantza, Industria, Merkataritza eta Ostalaritza batzorde informatzailea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priete (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA honako batzorde informatzaile iraunkorrak osatzea:

- Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailea.
- Kultura, Turismoa eta Euskara batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: kultura eta turismoko gaiak, alde batetik, eta euskarakoak, bestetik).



- Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: hirigintza eta ingurumena, alde batetik, eta gizarte ongizatekoak, bestetik).
- Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailea (aukera izango du bi azpibatzerde gisa funtzionatzeko: obra eta zerbitzuak, alde batetik, eta hezkuntzakoak, bestetik).
- Kirola eta Gazteria batzorde informatzailea.
- Nekazaritza, Arrantza, Industria, Merkataritza eta Ostalaritza batzorde informatzailea.

Alkateak hartzen du hitza eta batzorde informatzaile bakoitza zein gaiez arduratuko den argitzen du; adierazten du, baita ere, gaiak horrela bilduta, batzordeburu izendatutako pertsonen arteko sinergia bilatu duela, eta ez, horrenbeste, gaien arteko sinergia.

2.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorren osaketa. Batzordeak honela osatuta geratuko dira:

Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailea

Ordezkaritza titularrak: Jose Angel Zaldua Iparraguirre (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume (EHBildu) (ORAIN), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkoak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu, Gotzon Igoa Agirrezabal eta Amagoia Iribar Manzidor (EHBildu) (ORAIN).

Kultura, Turismoa eta Euskara batzorde informatzailea

Ordezkaritza titularrak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Gotzon Igoa Agirrezabal (EHBildu), (ORAIN), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkoak: Elixabete Bello Martija (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Amagoia Iribar Manzidor (EHBildu) (ORAIN).

Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailea

Ordezkaritza titularrak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ), Gotzon Igoa Agirrezabal (EHBildu) (ORAIN), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkaritza ordezkoak: Aitziber Campos Morey (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Amagoia Iribar Manzidor (EHBildu) (ORAIN).

Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailea

Ordezkaritza titularrak: Aitziber Campos Morey (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume (EHBildu) (ORAIN), Ana Priete Merchan (PSE-EE-PSOE).



Ordezkariordezkoak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu, Gotzon Igoa Agirrezabal eta Amagoia Iribar Manzisidor (EHBildu) (ORAIN).

Kirola eta Gazteria batzorde informatzailea

Ordezkariordezkariak: Eugenio Cotado Iturain (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu (EHBildu) (ORAIN), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkariordezkoak: Angel del Hoyo Bravo (EAJ), Amaia Dorronsoro Portularrume, Gotzon Igoa Agirrezabal y Amagoia Iribar Manzisidor (EHBildu) (ORAIN).

Nekazaritza, Arrantza, Industria, Merkataritza eta Ostalaritza batzorde informatzailea

Ordezkariordezkariak: Elixabete Bello Martija (EAJ), Amagoia Iribar Manzisidor (EHBildu) (ORAIN), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE).

Ordezkariordezkoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Emeterio Iribar Sorazu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Gotzon Igoa Agirrezabal (EHBildu) (ORAIN).

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta adierazten du ostiralerako, beranduek, bidaliko diola idazkariari, posta elektronikoz, zerrenda bat, adierazten duena zein diren bere talde politikoen ordezkari ordezkariak eta ordezkariak batzorde informatzaile bakoitzean.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO KIDEEK JASOKO DITUZTEN KONPENTSAZIO EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK.

Udalbatzarrak, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Iribar (EHBildu), Dorronsoro (EHBildu), Igoa (EHBildu), Iribar (EHBildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko udalbatzarra osatzen duten talde politikoen diru-izendapen finkoa (350 euro hileko, talde politikoa bakoitzarentzat), eta diru-izendapen aldakorra (100 euro zinegotziko).

2.- ONARTZEA Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buruen diru-izendapena: 300 euro hileko, batzordeburu bakoitzak.

3.- ONARTZEA Orioko Udaleko gainontzeko zinegotzien diru-izendapena: 200 euro hileko, zinegotzi bakoitzarentzat.



4.- Beren kargua dedikazio oso edo partzialarekin betetzen duten korporaziokideek ez dituzte goiko konpentsazio ekonomikoak jasoko.

Emandako botoa azaltzeko, Amaia Dorronsoro zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela kontzeptu berri bat sartu delako: 100 euroko diru-izendapen aldakorra zinegotzi bakoitzarentzat; horrek gastua %54 gehitzea dakar eta kalte egiten die ordezkari gutxiago dituzten talde politikoei; bere talde politikoari egokiago iruditzen zaio 2011-2015 agintaldian onartu zen planteamendua.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARREKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UDALAK ORDEZKATUTA EGON BEHAR DUEN ORGANO KOLEGIATU GUZTIETAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- Angel del Hoyo Bravo lehen alkateordea (EAJ) eta Emeterio Iribar Sorazu zinegotzia (EHBildu) **IZENDATZEA** Orioko udalbatzarraren ordezkari titular Urola Kostako Udal Elkaratearen Zuzendaritza Batzordean.

2.- Aitziber Campos Morey zinegotzia (EAJ) eta Amaia Dorronsoro Portularrume zinegotzia (EHBildu) **IZENDATZEA** Orioko udalbatzarraren ordezkari ordezkari Urola Kostako Udal Elkaratearen Zuzendaritza Batzordean.

3.- Jose Angel Zaldua Iparraguirre alkatea (EAJ) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari titular Urola Kostako Mendi Nekazaritzako Elkartean (URKOMEn).

4.- Jose Angel Zaldua Iparraguirre alkatea (EAJ) eta Aitziber Campos Morey Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzordeburua (EAJ) **IZENDATZEA**, hurrenez hurren, Orioko Udalaren ordezkari titular eta ordezkari Gipuzkoako Ur Kontsortzioan.

5.- Angel del Hoyo Bravo lehen alkateordea (EAJ) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari titular Euskal Fondoaren Batzar Nagusian.

6.- Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Amagoia Iribar Manzisidor (EHBildu), (Orain) eta Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) **IZENDATZEA** Orioko Udalaren ordezkari titular Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA).

7.- Jose Angel Zaldua Iparraguirre alkatea (EAJ) Orioko Udalaren ordezkari titular **IZENDATZEA** goian propio aipatu ez den eta Udalaren ordezkari behar duen beste edozein organotan.



Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orainen izenean, eta adierazten du beranduenez ostiralerako jakinaraziko diola udal idazkariari zein izango den bere taldearen ordezkari titularra Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA)

7.- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA HAINBAT IZENDAPENI BURUZ: ALKATEORDEAK, GOBERNU BATZARREKO KIDEAK, BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRETAKO BURUAK ETA DAGOZKION DELEGAZIOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak, 2015eko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, lehen alkateorde izendatu zuen Angel del Hoyo Bravo, Udalean ordezkaritza daukan EAJ talde politikoko zinegotzia, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2015eko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, bigarren alkateorde izendatu zuen Lourdes Salsamendi Goñi, Udalean ordezkaritza daukan EAJ talde politikoko zinegotzia, toki-araubidearen alorrean indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eskumen eta eskubideekin.

Alkateak, 2015eko uztailaren 3ko ebazpenaren bidez, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi eta Ana Priede Merchan zinegotziak izendatu zituen Tokiko Gobernu Batzarreko kide.

Alkateak, era berean, honako zinegotziak izendatu zituen Orioko Udaleko batzorde informatzaile iraunkorretako buru:

- **Jose Angel Zaldua Iparraguirre (EAJ):** Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo (EAJ).
- **Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ):** Kultura, Turismoa eta Euskara batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Elixabete Bello Martija (EAJ).
- **Angel del Hoyo Bravo (EAJ):** Hirigintza, Ingurumena eta Gizarte Ongizatea batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Aitziber Campos Morey (EAJ).
- **Aitziber Campos Morey (EAJ):** Obrak, Zerbitzuak eta Hezkuntza batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo (EAJ).
- **Eugenio Cotado Iturain (EAJ):** Kirola eta Gazteria batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Angel del Hoyo Bravo (EAJ).



- **Elixabete Bello Martija (EAJ):** Nekazaritza, Arrantza, Industria, Merkataritza eta Ostalaritza batzorde informatzailearen buru titularra. Ordezkoa: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HERRIKO JAI EGUNA 2016. URTERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Alkatearen proposamena da Orioko jaieguna 2016. urterako ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2016. urtean ekainaren 29a izatea, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuferatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ekainaren 30eko 118/2015 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2016. urterako.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,